**AGINDUA, 2020KO APIRILAREN 15EKOA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, SAILAREN 2018-2020 ALDIRAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA, ETA PLAN HORRETAN EUSKAL KULTURA-ONDARE MATERIAGABEARI BURUZKO IKERKETA-LANAK SUSTATZEKO ETA EUSKAL KULTURA-ONDAREAREN DIGITALIZAZIOARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAK SARTZEN DITUENA.**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan aurreikusita dago; horren arabera,

> *"Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".*

Aurrekoarekin bat etorriz, 2018ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2018-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartua izan zen.

Ondoren, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak laguntzak ematea proposatu du, norgehiagoka-prozeduren deialdiaren bidez, diru-laguntzen bi lerro berri hauetarako:

- Ondare Materiagabearen ikerketa (2020/2021), Euskal Ondare Kultural Materiagabea babestera bideratutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzak emateko helburuaz.

- Euskal Kultura Ondarearen digitalizazioa (2020/2021). Horren helburua da diru-laguntzak ematea Euskal Kultura Ondarea digitalizatzeko, OAI-PMH biltegiaren bidez (Open Archive Initiative – Protocolo for Metadata Harvesting; Interneten metadatuak transmititzeko protokolo estandarizatua).

Bi sustapen-ekimen berri horiek sailaren 2020rako urteko diru-laguntzen planean (2020ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez onartua) sartuta badaude ere, horiek Sailaren 2018-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan ere sartu behar dira.

**ORDEN DE 15 DE ABRIL 2020, DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE MODIFICA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2018-2020 DEL DEPARTAMENTO, INCLUYENDO EN DICHO PLAN LAS CONVOCATORIAS DE AYUDAS CORRESPONDIENTES AL FOMENTO DE TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN SOBRE PATRIMONIO CULTURAL INMATERIAL VASCO Y SOBRE DIGITALIZACIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL VASCO.**

El Plan Estratégico de Subvenciones se encuentra previsto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, según el cual,

> *"Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones, los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria".*

De conformidad con lo anterior, mediante Orden de 31 de enero de 2018 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Cultura y Política Lingüística para el período 2018-2020.

Posteriormente, la Dirección de Patrimonio Cultural ha propuesto la concesión de ayudas, mediante la convocatoria de procedimientos de concurrencia competitiva, para las siguientes dos nuevas líneas subvencionales:

- Investigación del Patrimonio Inmaterial (2020/2021), destinada a otorgar subvenciones para la realización de trabajos de investigación orientados al ámbito de la protección del Patrimonio Cultural Inmaterial Vasco.

- Digitalización del Patrimonio Cultural Vasco (2020/2021), cuyo objeto es la concesión de subvenciones para la digitalización del Patrimonio Cultural Vasco a través del repositorio OAI-PMH (Open Archive Initiative – Protocol for Metadata Harvesting; protocolo estandarizado para la transmisión de metadatos en internet).

Si bien dichas dos nuevas iniciativas de fomento se encuentran incluidas en el Plan Anual de Subvenciones del Departamento para el año 2020 (aprobado mediante Orden de 30 de enero de 2020), resulta asimismo precisa la inclusión de las mismas

en el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento para el periodo 2018-2020.

Azaldutakoarekin bat etorriz, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz, eta Kultura eta Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, honako hau

De acuerdo con lo expuesto, y en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y según lo previsto en el Decreto 82/2017, de 11 de abril, por la que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística,

**EBAZTEN DUT:**

**RESUELVO:**

**Lehenengoa.-** Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2018-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, bi laguntza-deialdi berri hauek gehituz:

- Euskal Kultura Ondare Materiagabea babestera bideratutako ikerketa-lanak egitea.
- Euskal Kultura Ondarearen digitalizazioa, OAI-PMH biltegiaren bidez.

Laguntza horien ezaugarri orokorrak agindu honen eranskinean zehazten dira.

**Bigarrena.-** Agintzea Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratzeko.

**Primero.-** Modificar el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Cultura y Política Lingüística para el período 2018-2020, incorporando al mismo las dos siguientes nuevas convocatorias de ayudas:

- Realización de trabajos de investigación orientados al ámbito de la protección del Patrimonio Cultural Inmaterial Vasco.
- Digitalización del Patrimonio Cultural Vasco a través del repositorio OAI-PMH.

Las características generales de dichas ayudas vienen definidas en Anexo a la presente Orden

**Segundo.-** Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.

**Izp./Fdo. BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA**
**CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 70 – Fax 945 01 94 91 – e-mail ondarea@euskadi.eus

| ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK / EJES ESTRATÉGICOS Y LÍNEAS SUBVENCIONALES |
|---|
| Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza / Viceconsejería: Viceconsejería de Cultura |
| **Helburu estrategikoa / Objetivo estratégico:**<br><br>Kultura ondarea balioztatzea eta zabaltzea.<br>Puesta en valor y difusión del patrimonio cultural. |
| **Diru-laguntza ildoa edo lerroa / Línea de subvención:**<br><br>Euskal Kultura Ondare Materiagabea babestera bideratutako ikerlanak egiteko diru-laguntzak.<br>Subvenciones para la realización de trabajos de investigación orientados al ámbito de la protección del Patrimonio Cultural Inmaterial Vasco.<br>KULTURA ONDAREA BABESTEA / PROTECCIÓN PATRIMONIO CULTURAL |
| **Organoa / Órgano:**<br><br>Kulturako Sailburuordea / Viceconsejero de Cultura. |
| **Programa eta Azpiprograma / Programa y Subprograma:**<br><br>4514 – Ondare Historiko Artistikoa / Patrimonio Histórico Artístico.<br>45141- Arkitektura, Arkeologia eta Monumentuen Ondarea / Patrimonio arquitectónico, arqueológico y monumental. |
| **Helburuak, ekintzak eta adierazleak / Objetivos, acciones e indicadores:**<br><br>Kultura Ondarea babestu, ikertu, sustatu eta zabaltzea.<br>Protección, investigación, fomento y difusión del Patrimonio Cultural. |
| **Zein sektoreri dago zuzenduta / Sector o sectores a los que se dirige:**<br><br>Diru-laguntzen programek aipatzen dituzten ekintzak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak.<br>Personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que realicen actividades a las que se refiere el programa de subvención. |

| ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK /<br>EJES ESTRATÉGICOS Y LÍNEAS SUBVENCIONALES |
|---|
| Sailburuordetza: Kultura Sailburuordetza / Viceconsejería: Viceconsejería de Cultura |
| **Helburu estrategikoa / Objetivo estratégico:**<br><br>Kultura ondarea balioztatzea eta zabaltzea.<br>Puesta en valor y difusión del patrimonio cultural. |
| **Diru-laguntza ildoa edo lerroa / Línea de subvención:**<br><br>Euskal Kultura Ondarea digitalizatzeko diru-laguntzak, OAI-PMH biltegia erabilita (Open Archive Initiative – Protocol for Metadata Harvesting, interneten bidez metadatuak bidaltzeko protokolo estandarizatua).<br>Subvenciones para la digitalización del Patrimonio Cultural Vasco a través del repositorio OAI – PMH (Open Archive Initiative – Protocol for Metadata Harvesting, protocolo estandarizado para la transmisión de metadatos en internet).<br>KULTURA ONDAREA BABESTEA / PROTECCIÓN PATRIMONIO CULTURAL |
| **Organoa / Órgano:**<br><br>Kulturako Sailburuordea / Viceconsejero de Cultura. |
| **Programa eta Azpiprograma / Programa y Subprograma:**<br><br>4514 – Ondare Historiko Artistikoa / Patrimonio Histórico Artístico.<br>45143- Agiritegiak / Archivos. |
| **Helburuak, ekintzak eta adierazleak / Objetivos, acciones e indicadores:**<br><br>Kultura Ondarea babestu, ikertu, sustatu eta zabaltzea.<br>Protección, investigación, fomento y difusión del Patrimonio Cultural. |
| **Zein sektoreri dago zuzenduta / Sector o sectores a los que se dirige:**<br><br>Pertsona fisikoak eta erakunde publikoak edo pribatuak, Euskal Ondare Kulturala osatzen duten elementuen titularrak direnak.<br>Personas físicas y entidades y organizaciones públicas o privadas que sean titulares de elementos integrantes del patrimonio cultural del pueblo vasco |

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 70 – Fax 945 01 94 91 – e-mail ondarea@euskadi.eus